



Zubiazpikoa (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Subiaxpi



43° 9' 48"

2° 34' 41"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... una casería llamada Zubiazpícoa, con su molino,... en la cofradía de Murgoiño, en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, es de dos viviendas y ocupa una planta superficial de ciento treinta y tres estados equivalentes a cinco áreas, seis centiáreas...”

DJE 6/158 or. (1893)

Zalduerreka ur-emarien ondoan kokaturiko base-
rri-errota dugu, eta haren gaineko lehen aipuak
XVIII. mendean aurkitzen ditugu: *Zubiaspícoa*
(1738, BAHP, A123/31. or.). Idazteko formari
begiratuta, aldaketa gutxi izan ditu izen honek
dokumentazioan, horietan nagusia dela-
rik batzuetan *S* hizkiak idatzirik eta besteetan
Z hizkiak idatzita agertzea: *Zubiazpícoa* (1825,
PE/1825), *Zubiaspícoa* (1905, BUA, 40. or.) eta
Zubiaspícoa (1967, BUA, CE). Auzotarren ar-
tean, *Subiaxpi* moduan ezagutzen da.

Elkarren ondoan dauden bi eraikin dira. Bata, txikiena, errotari dagokio, eta obra xumea da, izaera bereko beste eraikin asko legez. Kantalen eta leihoren bat harlanduzkoak badira ere, hormak eta baoak luzituta ditu. Ondoko baserria, ostera, handiagoa da, eta berriztatuta dago. Lau isurkiko teilatu batek babesten du; baina benetan bi zatiz osatuta dago fatxadako leihoe eta materialek ondo adierazten duten moduan. Bi pisuetako baoak neurri desberdinetakoak dira, eta hormak luzituta eta adreiluz estalita daude. Ate nagusia eta kantalak harlanduzkoak dira.

toponimia

Garai batean Zubia izeneko etxe bakarra zegoen baina bigarrena eraikitzeak ekarri zuen berezitu beharra eta azpikoa eta ganekoa gehitu zitzaizen. Hala eta guztiz ere Azpikoa beti agertzen bada era goikoari ez zitzaion beti Zubiganekoa esan eta askotan Zubia huts hutsean ageri zen. Etxe bi dagoen kasuetan hau nahiko arrunta da aski baita bati bereizgarri bat jartzea biak ez nahasteko (Zubiazpikoa <> Zubia). Gaur egun zubiak oso arruntak direnez ezin dugu imaginatu zer nolako garrantzia zuten XX. mendera arte. Askotan udal baten diru “galerarik” handiena izaten zen herri zubiak zutik edukitzea eta sarritan egurrezkoak ziren ez baitzegoen harrizkoak egiteko dirurik.